

## GEBren dokumentazio zentroko 2020ko otsaileko artikulua nabarmenak



MUÑOZ DELEITO, P., 2018. [Mujeres jóvenes de altas capacidades: aceptar y ser aceptada, sin miedo, sin violencia, con inteligencia](#). *Revista de Estudios de Juventud*, no. 120, pp. 129-143. ISSN 0211-4364

Artikulu honetan gaitasun handiko nesken eta emakumeen egoera aztertuko da, bai eta haien garapena optimizatzeko behar duten orientazio-premia ere. Goi-mailako gaitasuna duen emakumearen egoeraren ulermena garrantzi handia hartzen duen gaia da neurritz gaineko gaitasun intelektualaren azterketan, bai eta arlo horretako prestakuntzari eskainitako edozein programatan ere. Genero-ibilbide luze batetik eratorritako gizarte-presioek eta -estereotipoek eta emakumearen rolaerako gizarte-bilakaerak eragina izan dute haren garapen pertsonalean, sozialean eta lanekoan. Goi-mailako gaitasuna duen emakumeen ezaugarriak aztertuko dira, eta sozializazioak eta genero-estereotipoek beren identitatearen eraikuntzan duten eragina berrikusiko da, bai eta erreferente femenino batzuk ere, gizarte-jazarpena, ezkutatzea eta arbuiatzeko beldurra dei genezakeen egoera bati aipamen berezia eginez, indarkeria-modu argi gisa. Azken atala orientazioari eta gomendioei buruzkoa izango da, parte-hartze soziala sustatzeko eta bitzita profesionaleko proiektua garatzeko.



LÓPEZ-GONZÁLEZ, H., GUERRERO-SOLÉ, F. y ESTÉVEZ, A., 2019. **Adicciones comportamentales y tecnología: entre la persona adicta y la tecnología adictiva**. *Revista Española de drogodependencias*, no 44, vol 1, pp. 5-12. ISSN-e 2341-1759

Jokabide-adikzioak jokabide-eredu errepikakor gisa definitzen dira, jokabide horiek egiten dituen gizabanakoari edo haren inguruko pertsoneri modu negatiboan eragiten dietenak. Jokabide-menpekotasunaren funtsezko elementua da kontrolik eza, bulkadari eusteko ezintasuna, ekintza egiteko gogoia edo tentazioa, ondorio kaltegarriak ezagutu arren. Jokabide-adikzioek gero eta arreta handiagoa jaso dute XXI. mendean, substantziekiko adikzioekin maila psikobiologikoan dituzten antzekotasunak aurkitu ahala. Jokabide-adikzioek eragina dute gizabanakoaren sari-sisteman; izan ere, pertsona horrek ondoeza izaten du jokabidea galduz gero edo errepikapena murriztuz gero. Azken hamarkadan ugaritu egin dira gehiegizko erabilera sustatzeko portaera-psikologoek modelatutako produktu teknologiko ugariaren diseinuaz ohartarazten duten ahotsak. Ildo horretan, paradigmatikoa da nola munduko teknologia-enpresa handienetako exekutiboetako batzuek izugarri mugatzen duten beren seme-alabak pantaila eta mugikorretara sartzea, eta kasu batzuetan wifi eta gadget teknologikorik ez duten ikastetxeetara bidaltzen dituzte.





CABELLO GONZÁLEZ, R. y FERNÁNDEZ BERROCAL, P., 2019. **Emociones que educan: Programa INTEMO+.** *Cuadernos de pedagogía*, no. 499, pp. 112-118. ISSN 0210-0630

Artikulu honek adimen emozionaleko programak ezartzearen onurei buruzko ebidentzia zientifikoa aztertzen du, ikasleek hainbat arlotan garapen egokia izan dezaten, hala nola osasun fisikoan eta mentalean, funtzionamendu sozialean edo errendimendu akademikoan. Era berean, INTEMO+ programa gure herrialdean garatu den eta nerabeengan eraginkorra eta baliozkoa dela erakutsi duen adimen emozionaleko programaren adibide gisa deskribatzen du.

• ■ • ■ • ■ • ■ • ■ • ■ •